

Gizakiak ala postgizakiak?

 zientziakaiera.eus/2015/12/14/gizakiak-ala-postgizakiak/

Zientzia Kaiera -k idatzia 14 Abe 2015 Comentarios 0

Arantxa Arzamendi

Gizakiak ala postgizakiak? Eztabaida eta debaterako oso aproposa den liburu honek gaurkotasan handiko gaiak azaltzen dizkigu. Egile nagusiak bi bira. [Albert Cortina Ramos](#) (Bartzelona, 1961) abokatua eta hirigintzan aditua (UAB y UPC) eta [Miquel-Àngel Serra](#) (Bartzelona, 1961) biologian doktorea (UAB), eta biomedikuntza arloko ikertzailea.

Cortina eta Serraren liburuak humanismo berriztatzaile baten aldeko apustua egiten du eta kontzeptu berrietara hurbiltzen gaitu: berezitasun teknologikoa, giza hobekuntza, [posthumanismoa](#) eta [transhumanismoaren](#) mugimendua.

Liburuaren abiapuntu edo gako nagusia: giza hobekuntza da. Giza hobekuntzak arriskuan jartzen al du gizakion izaera edo bizia? [525 orrialdeetan](#) transhumanismoaren inguruko hausnarketa sakon bat egiten da hiru ataletan. Lehenengo atalean “¿Humanos o posthumanos?”, Albert Cortina eta Miquel-Àngel Serraren artikulua bana datoz. Bi artikulua hauek izan ziren 2013ko irailaren 29an Bartzelonako [La Vanguardia](#) egunkariaren web orrian transhumanismoaren mugen inguruan sortu zen debateari hasiera eman ziotenak. **Cortina eta Serraren analisiaren gai nagusiak berezitasun teknologikoa eta giza hobekuntza dira.**

Bigarren atalean, “Debate 3.0”, Cortina eta Serraren iritzi artikuluen ondoren La Vanguardian hamabi hilabete iraun zuen eztabaida luzea jasotzen da. Bertan [hainbat arlotako 213 adituk](#) parte hartu zuten, besteak beste, zientzialari, teknikari, soziologo, filosofo eta teologoak.

Hirugarren atalean, “¿Presente o futuro?”, liburu kolektibo honen bi egile nagusiek, **teknologia emergenteak gizakian, sistema naturaletan eta habitat urbanoetan izan dezaketen eraginari buruzko galderak egiten dituzte.** Guztira 250 galdera dira eta gehienak posizionamendu edo jarrera etiko eta berria eskatzen digute humanismoa, demokrazia eta guztien ona kontzeptuen inguruan. Liburu honetara hurbiltzen denak bakarka hausnartzeko edo taldean



eztabaidatzeko gaiak aurkituko ditu. Azkenik, irakurketa gaiekin jarraitu nahi duenak, bibliografia osagarri bat aurkituko du argitalpenaren amaiera orrietan.

Argitalpenaren fitxa:

- Izenburua: ¿Humanos o posthumanos?: singularidad tecnológica y mejoramiento humano
- Koordinatzaileak: Albert Cortina eta Miquel-Ángel Serra
- Argitaletxea: Fragmenta, 2015
- Orrialdeak: 525 orrialde
- Prezioa: 33 €
- ISBNa: 9788415518143
- Non eskuratu: ¿Humanos o posthumanos?: singularidad tecnológica y mejoramiento humano eskuragarri dago liburutegi publikoetan, besteak beste, [Donostiako Udal Liburutegien sarean](#)